

Etena, hasi bezain laster

Zaldibarko eskola itxi egin dute lau irakaslek positibo eman eta gero. Langile guztiei PCR proba egingo dietela azaldu du Osasun Sailak • 4



Lore eskaintza Berrizen, fusilatuak omentzeko

Berriz | Irailaren 11 gomuta eguna izaten da Berrizen. Frankistek hainbat herritar hil zituztela gogora ekartzeko, lore eskaintzak egingo dituzte Felipe Urriaga plazan eta udaletxeko lorategian. • 6



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua
- Goi mailako zikloetarko sarbide probak
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Irailaren 2tik 13ra

Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

Oporrak, barraskiloen antzera

Autokarabanen erabilerak nabarmen egin du gora uda honetan. Durangaldea horren lekuko zuzena izan da

OPORRAK • EKAITZ HERRERA

"Ta? Oporrak zer moduz joan dira ba?", dio batek. "Tira, badakizu,... gauza handirik ez aurten. Birus arraio horregaz ezin bidaia lasairik egin! Urrutirako hegaldirik ez. Autokarabana hartu eta hortik zehar ibili gara", erantzun du besteak. Alegiazko elkarrizketa bat baino ez da, baina, aurten, errealismo handia hartu duena. Kutsatzeei eta jende pilaketei ihes eginda, Durangaldea herriar askok autokarabana edo

furgoneta hartuta pasatu dituzte oporrak. Aukera horixe eskaintzen baitu bidaia ibilgailu batek: gertukoak diren kontaktuekin plana egitea, etxetxo bat lau gurpilen gainean ipintzea eta errepidean kilometroak egitea.

Durangaldeko herritar askok Pirinioak, Galizia, Asturias aldea edo Landak bisitatu dituzte. Eta ez hori bakarrik. Gure eskualdea bisitatu dutenak ere pila bat izan dira. Urkiola izan da horren lekuko.



Autokarabanen aparkalekua Zegaman (Gipuzkoa). GOIERRI TURISMO.



Edurne Solaguren iurretarra, Itsasne Larruskain abadiñarra, Andrea Alzuaran atxondarra eta Nerea Gonzalez abadiñarra.

"Saint Michel mendiraino ailegatu ginen, baina bidean hainbat geldialdi egin ditugu"

Lagun kuadrilla honek 12 eguneko oporraldia pasatu du autokarabanan. Errepikatzeako moduko esperientzia izan dela diote. Britainia, Loira eta Landak bisitatu dituzte

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

"Argi genuen oporretan kanpora joan gura genuela, baina ez genuen hegazkinik hartu gura. Egoera honetan, errespetua ematen zigun hegazkina hartzeak. Horregaitik, autokarabana alokatzea erabaki dugu aurten", dio Ainhoa Alzuaranek (Atxondo, 1990). Berak eta bere lagunak lehenengo aldia izan dute oporrak autokarabanan pasatzen.

Britainia eta Landak bisitatu dituzte gehienbat. "Normandiako mugaraino ailegatu ginen, Saint Michel mendiraino. Euskal Herriatik 800 bat kilometrora dago gutxi

gorabehera. Oso toki berezia da, monasterio bat dago mendi-uharte baten gainean. Baina haraino zuzenean joan barik, beste herri batzuk ere bisitatzen aritu gara bidean. Britainiako herri txikiak oso politak dira, adibidez. Buelako bidaian Bordelen eta Loirako gazteluetan egin ditugu geldialdiak. Baita Landetan ere", esan du Alzuaranek.

Autokarabanan bidaiatzea oso esperientzia polita izan dela adierazi du. Ibilgailuaren barruan denerik izan dute. Lo egiteko tokia, komuna, dutxa eta sukaldea. "Dutxak arin batean hartzen genituen,

ahalik eta urik gutxiena erabiltzeko. Kozinatu, etxean lez egin dugu. Oso eroso da. Dena eskura duzu, eta ordutegiak nahieran moldatu ditzakezu".

Errepikatzeako esperientzia

Alzuaranek eta bere lagunak argi dute errepikatu egingo dutela esperientzia. "Gure artean erdi barrezka esaten genuen ez ote genuen autokarabana bat erosiko. Halakorik ez oraingoz! Baina bai, aurrerantzean esperientzia errepikatuko dugu. Asko gustatu zaigun opor mota da".

Uda honetan mendizale baino turista gehiago egon da Urkiolan

URKIOLA • JONE GUENETXEA

Etxean, goxo. Edo tira. Etxetik gertu, goxo. Urkiolako parke naturaleko aparkalekuak sekula baino beteago egon dira uda honetan. Furgoneta eta autokarabana askok erabili dituzte santutegiaren inguruak kanpin lez.

Felix Moreno Urkiolako santutegiaren arduraduna da eta uda honetakoa "arraroa" izan dela dio. "Urkiolako aparkalekuan 60-70 autokarabana eta furgoneta zenbatu izan ditugu. Inoiz baino gehiago. Arazoa da, Urkiolan mendizale

asko dabilela eta goizean goizetik mendira joateko aparkalekura joaterakoan ez dutela lekurik topatu. Uda honetan mendizale gutxiago eta turista gehiago izan ditugu", azaldu du Morenok. Bere iritzian, geroago eta ohikoagoa izango da irudi hori. "Autokarabana eta furgonetena errotuko den ohitura bat dela uste dut. Udalagaz berba egin dugu hau arautu beharreko kontu bat da eta. Dena dela, nabarmendu gura nuke oso ondo portatu direla eta garbitasun aldetik ez dela arazorik sortu", dio Morenok.



Urkiolako santutegiaren ondoko aparkalekua, irailaren hasieran.

"Beste urte batzuetan baino askoz ere eskari handiagoa izan dugu autokarabanen alokairuan; eskariak bikoiztu egin zaizkigu aurten"

Mikel Alvarezek autokarabanen eta karabanen salmentei eutsi die aurten. Alokairu eskaria, baina, nabarmen igo dela dio

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Mikel Alvarezek (Lekeitio, 1976) orain hamar bat urte zabaldu zuen autokarabanak alokatzeko eta saltzeko negozioa, lurretan. Mallabiena industrialdean du bere txokoa, izen bereko lokalean: Mikel karabanak.

Uda honetan igo egin da autokarabanen eskaria?

Bai. Mundu honegaz orain arte kontakturik izan ez duen jende asko etorri da gugana. Jende berri asko etorri da, bai erostera eta baita alokatzera ere.

Zeri zor zaio gorakada hori?

Komunikabideetan asko hauspotu da testuinguru honetan oporrak autokarabanen pasatzea aukera egokia den ideia. Ez dut esango *anticovid* denik, baina bai badela, zelanbait, *freecovid*. Azken finean, zeure familiagaz zoaz hortik zehar eta ez duzu inogaz erlazionatu beharrik gura ez baduzu. Joan zaitezke kanpin batera, zerbitzugune batera edo, besterik barik, zure airera egon

zaitezke. Euria datorrela? Ibilbi-dea aldatu dezakezu. Askatasuna ematen du norbere airera ibiltzeko. Opor mota hau betidanik egon da, baina askok aurten probatu dute lehenengoz. Gustura gelditu dira gainera.

Orain arteko oporren eta aurtengoen artean, zelako aldea igarri duzue?

Urtero saltzen dugun kopurura ailegatuko gara aurten ere. Kontuan hartu behar da hiru hilabeteen zarratuta izan dugula lokala, eta hile bi hauetan bost hiletan beste saldu dugula. Salmentari dagokionez, antzeko zenbakiak lortuko ditugu aurten. Alokairuan, oster, hor bai, hor igarri dugu gorakada. Jende asko etorri da galdezka. Beste urte batzuetan baino askoz ere eskari handiagoa izan dugu. Alokairuak bikoiztu egin zaizkigu.

Zuek alokatutako autokarabanak nondik ibili diren badakizue?

Jende asko Galizia inguruan ibili da, eta baita Frantzia aldean ere, Arcachon inguruan-eta. Adibidez,



Mikel Alvarezek autokarabanak eta karabanak saltzen eta alokatzen ditu lurretan, Mallabiena industrialdean.

"Aurten gutxi izan dira urrutira bidaiatu dutenak; jendeak hemen inguruan bidaiatu du"

aurten gutxi izan dira autokarabanen Suitzara edo inguru urrutia-goetara bidaiatu dutenak. Jendea hemen inguruan geratu da. **Zein tokitako bezeroak etorri zaizkizue?**

Denerik. Durangaldeko herritar asko etorri dira. Azpeitiatik eta

Arrasatetik ere etorri zaizkigu.

Zein profiletako herritarrak etorri dira? Familiak? Lagunarteak?

Familiak eta bikoteak etorri zaizkigu gehien. Eta asko, umeekin. Lagun kuadrillaren bat ere etorri zaigu, baina aurreko urteetan baino apur bat gutxiago.

GURE **IZAERA**
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.

GEUREA LEHENA.

⇒ 1



Zaldibarko eskolako irudia.



Traña-Matienako eskolako gurasoek astelehenean egindako elkarretaratzea.

"Prentsari jakinarazi aurretik, eskolari aukera bat eman behar zitzaion gurasoei egoera komunikatzeko, txarto-ulerturik egon ez zedin"

Zaldibarko eskola zarratu dute, irakasle batzuek PCR proban positibo eman eta gero

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Eguaztenean zurrumbiloa sortu zen Zaldibarko eskolan, lau irakasle koronabirusaren proban positibo eman eta gero. Irailaren 3tik eguaztenean bitartean egin zituzten probak. Egoera horren aurrean, Osasun Sailak zentroa zarratzeko erabakia hartu zuen. Eguaztenean bertan, zentroko beste irakasle biri PCR proba egin zieten. Eguenetik aurrera langile guztiei egingo diete proba. Ikasleei ere proba egingo zietela publiko egin zuen hedabide batek, baina zentroak eta gurasoek ez dute horren berririk, oraingoz.

Zaldibarko eskolak 300 bat ikasle ditu, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Prentsan lehenengo

Zaldibarko eskolaren inguruko informazioaren kudeaketak zentroko zuzendaritza eta gurasoak haserrarazi ditu. Izan ere, ikaste-

Guraso askok hedabideen bitartez ezagutu zuten berria, eskolako oharra jaso aurretik

txeak positiboen berri izan zuen momentuan egin zen publiko hedabideetan. Guraso askok hedabideen bitartez ezagutu zuten berria, eskolako oharra jaso aurretik. "Prentsari jakinarazi aurretik, eskolari aukera bat eman behar zitzaion gurasoei egoera komunikatzeko, txarto-ulerturik egon ez zedin", azaldu du eskolako arduradun batek.

Gurasoak ere haserre daude Hezkuntza Sailagaz. "Errespetu falta iruditzen zaigu prentsatik enteratzea. Eskolako irakasleek eta zuzendaritzak gure babes guztia dute. Badakigu ahal izan duten guztia egin dute-

la eta atzo gainezka zeudela", azaldu du Alaitz Urien gurasoak. Hezkuntza Sailak ikasturte hasierarako egin duen planteamenduagaz kritiko agertu da Urien. "Bagenekien hau pasatu zitekeela. Hezkuntza Sailak ez du ikasturte hasiera seguru bat bermatu. Ez dute horretarako baliabiderik ipini. Bestalde, irakasle asko astelehenean bertan hasi ziren lanean", gaineratu du.

Greba 15erako

Ikasturte hasiera nahasi honetan, sindikatu guztiak bat datoz esaterakoan Eusko Jaurlaritzaren aldetik baliabide gehiago behar direla eskolara buelta seguruagoa izateko. Horregaitik, greba deialdia egin dute datorren asteko martitzenerako (irailak 15). Ikasturtea hasi eta biga-

Irakaskuntzarako eta jantokirako behargin gehiago kontratatzea eskatzen dute Matienan

rren astean, irakasleen aldarrikape-nak mahai gainean ipiniko dituen protesta planteatu dute.

Traña-Matienako protesta

Sindikatuetatik harago, Traña-Matienan mobilizazioa egin zuten astelehenean. Guraso talde batek baliabide gehiago ipintzea eskatu die administrazioei. Irakaskuntzarako eta jantokirako behargin gehiago kontratatzea eskatzen dute. Ikasgeletan maskarak ipintzea proposatu dute, "umeen maskarak apurtu, zikindu edo busti" egin daitezkeelako. Ikasleei ordezkoko maskara bat eramateko eskatzea gura dute, batez ere jantokia erabiliko dutenei. Jantokiko taldeen txanda kopurua areagotu egin beharko litzatekeela uste dute: "Gerta daitezkeen kasuistiken gaineko informazioa eskatzen dugu. Zer gertatuko litzateke kasu positiboren baten ondorioz berrogeialdia egin behar izanez gero? 15 egun horietan egongo litzateke klaserik internetetik?", galdetu dute.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko irailaren 11a
18. urtea - 819. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bizkaia**
Eusko Jaurlaritzaren
Departamentuaren
argitaletxearen
argitaletxearen
argitaletxearen

PEFC
PEFC014-38-0025

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Jantokirako pertsonal gehiago eskatu dugu eta erantzunaren zain gaude”

Burbuilen egitura jantokian ere mantentzeko, langile gehiago behar dituzte Zelaiaetan



ABADIÑO • JOSEBA DERTEANO

Leire Aldekoa-Otalora Iturriagae-txebarria Zelaia Herri Eskolako zuzendaria da. Eta Idoia Esturo Lauzirika, ikasketa burua. Ikasturte hasiera zelan bizi duten azaldu dute biek.

Zein sentsazilogaz abiatu duzue ikasturtea?

Leire Aldekoa-Otalora: Gogotsu hasi dugu, batez ere lehenengo eguna. Sentsazioa oso ona izan da. Egia esan, gizarte osoak bizi duen egoera da hau, eta bakoitzak dagoen lekutik egin behar du bere ekarpena. Aurreko ikasturtea amaitu zenetik, kontingentzia planagaz gabilta. Aste honetan ere aritu gara guraso eta aholkulariekin. Bizirik dagoen plan bat da eta egokitzen joango da. Beraz, lehenengo eguna urduri bizi izan dugu, baina pozik. Pozik familiek izan duten erantzunagaz. Denek jakin izan dute zer egin eta zalantzak zituztenek galdetu egin dute.

Zelan antolatu duzue dena?

L.A.: Egoera hobetu artean, hainbat ordutegi egin ditugu. Burbuilaka lanean ari gara, elkarbizitza taldeak sortuz. Espezialistak talderik talde joango dira. Barruan, sarreran, LHn eskuak desinfektatu eta tenperatura hartuko diegu. Jantokira doazenean ere hartuko diegu tenperatura. Seinaleztapena ere ipini dugu.

Idoia Esturo: Espazioak berrantolatu ditugu. Gela bat atera dugu urte bikoentzat. Bestalde, udalak pertsona bat kontratatu du garbitasunerako, egun guztirako. Hainbat bider garbituko ditu komunak, baita gehien ukitzen diren gauzak ere.

L.A.: Jantokia ere moldatu behar izan dugu segurtasuna bermatzeko. Apurka-apurka joango gara.

I.E.: Osasun neurrietatik aparte, lehentasunezko helburu bat umeen sozializazioa da eta arlo afektibo-emozionalaren lanke-

ta. Beraz, hortik helduko diogu lanari.

L.A.: Oso garrantzitsua da umea eta familia zein momentutan dauden detektatzea eta laguntzea ikasketa prozesu egokiago bat izan dezagun. **Protokoloak betetzeko baliabide falta salatu dute zentroek, eta baita sindikatuek ere. Ildo horretatik, zein kezka duzue?**

L.A.: Pertsonal aldetik zailtasunak ditugu jantokian. Han ere burbuilaka lan egitea gura dugu. Kontraesana litzateke jantokian nahastuta egotea. Horixe eskatu diogu Hezkuntza Sailari, pertsonal gehiago jantokirako, eta erantzunaren zain gaude.

I.E.: Lortuko dugu, ziur.

L.A.: Bai, ziur. Ekinak gara.

Zein mezu zabaldu gurako zenukete zuen hezkuntza komunitatean?

L.A.: Eskerrak eman gura dizkiogu hezkuntza komunitate guztiari euren babesa sentitu dugulako. Edozein kezka argitzea behar duenak bertan izango gaitu.



Itxaso Saizar

Zelan bizi izan dituzue eskolara bueltako azken egun hauek?

Umeen kasuan adinaren arabera doa. Nagusiak lagunak berriro ikusteko ilusioa zuen. Txikiak, oster, ez zuen etorri gura, pozik zegoen etxean. Guraso moduan arduratuta eta haserre gaude.

Badakigu eskolatik protokoloa zuzen aurrera eramateko eginahalak egiten dabilazala. Horretan ez dugu inongo dudarik. Baina egun dituzten baliabideekin protokolo horiek aurrera eramatea ezinezkoa da. Sei hilabete egon dira gauzak ganoraz egiteko, ez dira egin eta beharrezko baliabide horiek ez dira eskoletara heltzen. Eskoletan lan handia egin dute, baina laguntza falta da instituzioen partetik. Gura izanez gero bazegoen aukera gauzak beste era batera kudeatzeko: ikasleen ratioak jaitsi, pertsonala handitu, begiraleak jantokietan...

Zelan bizi izan dituzue eskolara bueltako azken egun hauek?

Hiru seme-alaba ditut eta urduritasun apur batez bizi izan dituzte eskolan hasi aurreko egunak. Baina, gero, klasera sartzeko unea ondo joan da, negarrik barik eta ondo. Aurrera begira, badugu ziurgabetasun apur bat: jantokia dela eta ez dela, ordutegiak aldatuko diren ala ez...

Segurtasun neurrien zer informazio jaso duzue?

Eskolatik bidali digute informazioa, gauzak zelan antolatuko diren. Neurri horiekin ados egon ala ez, beste kontu bat da. Gauza



Jon Arrieta

batzuk, beharbada, beste modu batera egin ahalko ziren. Esaterako, badago aldarrikapen bat klaseak jarraian egiteko, 14:00ak arte. Niri ondo etorriko litzaidake ordutegi hori, eta beste askori ere baietz esango nuke, baina, tira, ikusiko dugu gauzak zelan garatzen diren.



Rosa Perez

Zelan bizi izan dituzue eskolara bueltako azken egun hauek?

Normaltasunez bizi izan dugu eskolarako itzulera. Hainbeste denboraren ostean, urduritasun apur batez ere bai, baina, oro har, normaltasunagaz eta pozik. Seme bi ditut, sei eta hiru urtekoak, eta lehenengo egunean ez

zitzaien bat ere kostatu esnatzea eskolara etortzeko, eta pozik etorri ziren. Erraza izan zen guretzat.

Segurtasun neurrien zer informazio jaso duzue?

Informazio gehiegirik ere ez geneukan, baina behin eskolara bertara joanda, dena oso ondo antolatuta zeukatela ikusi genuen. Nire seme batek aurtan hasi du Lehen Hezkuntza. Ingu-ru eta giro desberdinak izango ditu, tutore berria, gainera egoera ezohiko honetan... Baina ondo joan da eta lasai nago. Denak horrela jarraitzea espero dut.



merkataritza gida **sarean** anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urrian 50€)

IRAILAK 7TIK OHIKO ORDUTEGIA

9:00-13:30
15:00-20:00

Segurtasun protokoloak zerbitzu eta ekintzetan bermatuta egongo dira

2020-21 ikasturterako ekintzetan izen ematea:
IRAILAK 21-30 ERROLDATUAK
IRAILAK 28-30 EZ ERROLDATUAK



Jairik bako lehenengo asteburuan herritarrek "erantzukizunez" jokatu dutela dio udalak

Iraileko lehenengo asteburu bietan ospatzen dituzte Ferixa Nausikoak; aurten ez dago jairik



Elorriko plazako irudia.

ELORRIO • J.G.

Elorriko udal arduradunak kezkatuta zeuden iraileko lehenengo asteburuari begira. Jairik antolatuta barik ere, beste herri batzuetan gertatu dena saihesteko, Ertzaintzari eta udaltzaingoari arauen jarraipen estua egiteko esan zien udalak. Era berean, herritarrei arduraz jokatzeko dei egin zieten. Bada, jairik ez dagoen lehenengo asteburuan elorriarrek "erantzukizunez" jokatu dutela azaldu dute udal arduradunek.

Beste herri batzuetakoa saihesteko, Ertzaintzari eta udaltzaingoari jarraipena eskatu diote

Aurrerantzean ere ardura horregaz jaraitzeko deia egin die herritarrei Elorriko Udalak

kizunez" jokatu dutela azaldu dute udal arduradunek.

Aurrerantzean ere ardura horregaz jarraitzeko deia egin du Elorriko Udalak. "Pedagogia egiten ahalagintzen ari gara. Bideo bat atera dugu egoera azaltzeko. Dena ez da isunak ipintzea. Kontzientzia hartu behar dugu", esan diote ANBOTOrri udal arduradunek.

Elorriko Udalak Gazte Bonoak kanpaina martxan ipiniko du urrian

ELORRIO • A.M.

Gazte Bono kanpaina Elorrio Biziberritzen planaren barruan sartzen da. Hamar euroko bonuak banatuko dituzte hamabi eurotik gorako erosketak egiten dituzten gazteen artean. "Aurrera jarraitzen dugu ekainean hiru alderdiok gauzatu eta sinatu guenen Elorrio Biziberritzen

Bonuak banatuko dituzte 12 eurotik gorako erosketetan

planeko neurriein eta proposamenekin", azaldu du Maria Herrero alkateordeak. Elorriko saltoki txikietan eta jatetxeetan erabili ahalko dira.

Bestalde, eskolako materiala erosteko laguntza urriaren 30era bitartean erabili ahalko da. Udalak 5.000 ipiniko ditu horretarako; herritar bakoitzak gehienez 150 euroko laguntza jasoko du testuliburuak eta eskolarako bestelako materiala erosteko.

Fusilatutako herritarrak omentzeko lore eskaintza Berrizko gune bitan

Indar frankistek Felipe Urtiaga alkatea eta Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Fermin Aranguren eta Agustin Milikua berriztarrak fusilatu zituzten. Irailaren 11 eurak omentzeko eguna da

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 11 gomuta eguna izaten da Berrizen, frankismoan hildako eta errepresaliatutako herritarrak omendu eta gogoratzeko eguna. 1936an indar frankistek Felipe Urtiaga alkatea eta Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Fermin Aranguren eta Agustin Milikua herritarrak fusilatu ondoren, irailaren 11 lagun

horiek eta, oro har, frankismoa sufritu zutenak omentzeko baliatzen dute.

Aurtengoa berezia izango da. COVID-19a dela-eta, ekitaldi bakarra egingo dute eta, gainera, hori egokitu egingo dute, jende pilaketak ekiditeko. Hori dela-eta, barikuan, irailak 11, 18:00etatik 19:00etara, lore eskaintza Berrizko

gune bitan egingo dute. Bata Felipe Urtiaga plazan, eta bestea oroimenaren bidean, udaletxeko parkearen barruan.

Lore eskaintzari dagokionez, Berrizko Udalak jakinarazi du loreak alde aurretik banatuko direla. Loreak lore eskaintzak egingo diren toki bietan egongo dira eskuragarri.



Urtero egiten dute lore eskaintza Berrizen.



30.000 euro ipiniko dituzte kanpainarako.

Aurrekontu parte-hartzaileetan ekarpenak egiteko aukera

Atxondoko herritarrek irailaren 30era arte edukiko dute aukera euren proposamenak udaletxean aurkezteko

ATXONDO • AITZIBER BASAURI

Atxondoko herritarrek zabalik dute 2021eko aurrekontu parte-hartzaileetan ekarpenak egiteko epea. Proposamenen bat egin gura duen herritarrak udaletxean ipinita dagoen postontzian utzi dezake ekarpena, idatzita. Bestela, info@atxondo.eus helbidera idatzita egin daitezke ekarpenak. Udalak

azaldu duenez, ideia kontuan hartzeko, teknikoki "bideragarria" izan beharko da.

Udalak 30.000 euro ipiniko ditu 2021eko aurrekontu parte-hartzaileetarako. Iaz, 10 bat proposamen jaso ziren. Horien artean, Axpeko, Apatako eta Arrazolako hilerrietako irisgarritasuna hobetzeko proposamena zegoen.



Gremioen gida

anboto

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA
944 202 768

Arzubia 10 B Industrialedea, 13-14 pabellioak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

 **Zurgintza**

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Komertzio txikia eta jasangarritasuna sustatzeko kanpaina hasi dute Durangon

30 euroko erosketa eginda, telazko poltsa bat, sareko poltsa bi eta tuper bat jaso ahalko da. Dendak Bai merkatarien elkarteak abiatu du kanpaina, udalagaz elkarlanean



Aritz Bravo Durangoko Udaleko zinegotzia, Alexander Palacios eta Agurne Azkarate Dendak Bai-ko kideak eta Jorge Varela zinegotzia.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Udalaren laguntzagaz, Dendak Bai Durangaldeko Merkataritza Elkarteak *Guk*, Durango sentsibilizazio kanpaina ipini du martxan. Tokiko kontsumoaren aldeko ekimena ingurumenagaz lotu dute, *Bertako gehiago, kalte ekologiko gutxiago* leloaren bitartez. "Aurten pauso bat haratago joan gura izan dugu", azaldu du Alexander Palacios Dendak Bai elkartearen kideak. Erabilera bakarrek plastikozko poltsen kontsumoa murriztea gura dute.

Kanpainara atxikitako establezimenduetan 30 euroko erosketa eginda, telazko poltsa bat, sareko poltsa bi eta tuper bat jaso ahalko da. Entrega-leku bi ipini dituzte eta opariak urriaren 1era arteko

eguenetan jaso ahalko dira. Hona-ko hauek dira leku biak: Madalena plaza (irailaren 10ean eta 24an, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara) eta Ezkurdi plaza (irailaren 17an eta urriaren 1ean, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara).

Entrega-puntuetan NANA eta erosketa tiketa erakutsi behar dira. Tiket bat baino gehiago izan daitezke. Denen artean 30 eurora heltzea da baldintza bakarra. Egue-

"Horrelako kanpainak beti izan badira garrantzitsuak, orain garrantzi berezia dute"

nero 500 sorta banatuko dituzte, gehienez. Kanpainari buruzko informazio eguneratua Dendak Bai elkartearen webgunean ipiniko dute: dendakbai.eus

Udalaren babesa

Egitasmoak Durangoko Udalaren laguntza du. Aritz Bravo zinegotziak kanpainaren garrantzia azpimarratu du: "Hile gogorak izaten ari dira herriko komertzio txikiarentzat. Beraz, horrelako kanpainak beti izan badira garrantzitsuak, orain garrantzi berezia hartu dute". Jorge Varelaen iritziz, horrelako ekimenak "onuragarriak" dira herriko komertzioaren-
tzat, eta aurretik helburu berdina-
gaz martxan ipinitako ekimenak
gogoratu ditu.

Herriko ia 80 komertziotan erabili ahalko dira Durangoko Udalak jaulkitako Eskola bonuak

10 eurogaz 20 euroko erosketa egin ahalko da dendetan. Kanpaina astelehenean hasi zen



Durangarrek ilara luzeak sortu zituzten, martitzenean, Eskola bonuak eskuratzeko.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Herriko sozioekonomia bultzatzeko planaren neurrietarik bat dira Eskola bonuak. Funtzio bi dituzte: familiei eskolara bueltan laguntzea eta komertzioei laguntzea. Bonua 10 euroan erosten dutenek 20 euroko erosketa egin ahalko dute komertzioetan. Ia 80 dira kanpainari atxikita dauden dendak. Guztien zerrenda anboto.org atarian topatu daiteke. Egitasmoak 30.000 euroko aurrekontua du. Agortu bitartean, bonuak irailaren 20ra arte egongo dira eskuragarri.

Zornotzako euskaltegiek egoera berrira moldatuta hasi dute ikasturtea

Zornotzako barnetegiak, AEK-k eta udal euskaltegiak ikasturte berria hasi dute. Prest daude ikasleak hartzeko


ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Beldurak uxatu. Koronabirusari buruz ere euskaraz berba egin dezagun", esan du asteon Idoia Zuloagak, Zornotzako udal euskaltegiaren zuzendariak. Bada, Zuloagak esandako berba horiek ederto batean deskribatzen dute Zornotzako euskaltegien egoera. Asteon ikasturte berria aurkeztu dute Amaia Aurrekoetxea euskara zinegotziagaz batera. Atzean utzi dituzte zailtasunak, eta haien esku dagoen guztia ipini dute inor-
txo ere euskara ikasi ezinik geratu
ez dadin. Euskaltegiaren izena
emateko aukera zabalik dute.

Zornotzako barnetegiak klaseak internetetik eta klase telema-

tikoak garatuko ditu. Lehenengoak asistentzialak izango dira. Hau da, ikasleak pantailaren beste aldean klaseak segitzen daudela ziurtatuko dute. AEK-k ikasle talde guztiei eutsita ekingo dio ikasturte berriari. Gutxi gorabehera 80 bat dira Zornotzako AEKn izena emanda dauden ikasleak. Aurrez aurreko klaseak eta internet bidezkoak eskainiko dituzte. Udal euskaltegiari dagokionez, adin eta profil guztietako ikasleak hartzen jarraituko dute, orain arteko moduan.

Amaia Aurrekoetxea zuzendariak gogoratu du udalak diruz lagunduko diela ikasleei. Asistentzia eta lorpen-eskakizunak malgutu dituztela ere azaldu du.



Zornotzako euskaltegiaren kideak eta Amaia Aurrekoetxea zinegotzia, martitzenean.

Garaiko Udalak ur hornidura hobetzeko lanak egingo ditu

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Udalak herriko ur hornidura hobetzeko lanak hasiko ditu, "uraren kalitatearen kontrola eta osasungarritasuna" hobetu guran. Mantentze eta hobekuntza lanak herriko ur biltegi bitan egingo dituzte: Solagarain eta San Migelen. Besteak beste, altzairu herdoilgaitzezko arotzeria berria instalatuko dute Solagarain, eta hustubidea aldatuko dute San Migelen, aldian-aldian egin behar diren garbitze lanak errazteko.

Urrestikoa, bertan behera

Garaiko Udalak Urrestiko ur bil-

tegia zarratuko du "osasun agintariak emandako gomendioei jarraituz". Biltegiaren tamaina oso txikia dela eta hornidura sareari biltze edo metatze-maila interesgarriak ematen ez diola azaldu du udalak. "Zaildu egiten du uraren kalitatearen maila onargarriari eustea", adierazi dute.

Eguraldiaren arabera, lanek hiru hilabete baino gehiago iraun dezakete. Denbora horretan zehar ur mozketak egon daitezkeela aurreratu du udalak. Halakoetan, herritarrei jakinaraziko zaie. Lanek 51.000 euroko aurrekontua dute gutxi gorabehera.

Ospitaleetako gelen egoera egonkorra da, baina igo egin da ZIU geletan artatutako herritarren kopurua

Durangaldeko kutsatzeek ez dute etenik izan, nahiz eta orain arte ez den agerraldi larririk identifikatu. Garain lehenengo koronabirus kasua baieztatu dute asteon. Euban PCR probak egin dizkiete Durangaldeko egoitzetako beharginei

KORONABIRUSA • EKAITZ HERRERA

Lehenengo lepotik burua. Koronabirusaren kutsatzeek ez dute etenik izan asteon, baina zarraparra sortzeko moduko kopururik ere ez dute utzi. Joan zen barikutik domekara bitartean, 49 kasu berri baieztatu ziren Durangaldean (28 Durangon, 10 Zornotzan, 3 Abadiñon, bina Berrizen eta Iurretan eta bana Atxondon, Elorrión, Mallabian eta Zaldibarren).

Lehenengo kasua Garain

Asteak aurrera egin ahala, berrikuntzak ailegatu dira. Horiatariko bat, Garaitik. Oiz magalean dagoen herriak estatistikei ihes egin die orain arte, baina Osasun Sailak martitzenean jakinarazi zuenez, astelehenean koronabirus kasu bat baieztatu zen han. Pandemia hasi zenetik lehenengo. Dagoeneko, Durangaldean ez dago koronabirus kasurik erregistratu ez duen herririk. Garaik lehenengo kasua izan zuen martitzen horretan, eta eskualdeko gainerako herrietan honako PCR positiboak baieztatu ziren: Durangon 8, Iurretan 5 eta bana Abadiñon, Zornotzan, Elorrión eta Zaldibarren.

Edizio hau ixterako, Osasun Sailak argitaratu barik zituen eguazteneko datuak. Martitzenekoen arabera, 20 ziren Durangaldean erregistratutako gaixo



Astelehenean PCR proba prebentiboak egin zizkieten egoitzetako beharginei, Eubako frontoian.

berriak: Durangon 12, Berrizen 3, Iurretan 2, Elorrión 1, Zaldibarren 1 eta Zornotzan 1. Egun hartan, 9.906 PCR proba egin ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta horietatik 661 izan ziren positiboak (%6,67). Positibo horietatik 312 Bizkaian identifikatu ziren; 97 Araban eta 240 Gipuzkoan.

Ospitaleetako egoera

Ospitaleetako gelen egoera egonkor mantendu da aste honetan zehar. Martitzenean 247 herritar zeuden Arabako, Bizkaiko eta Gi-

Martitzenean 247 herritar zeuden EAEko ospitaleetan, aurreko astean baino 3 gutxiago

Iraila hasi denetik 31 herritar hil dira EAEn "koronabirusaren eragin zuzenagaitik"

puzkoako ospitaleetako geletan (joan den astean baino 3 gutxiago). Aurreko asteko martitzenean 250 ziren. Horrek adierazi dezake ospitaleetako geletako artatzeak gorabeheratsuak izan daitezkeen arren, nahiko egonkor mantentzen ari direla.

Zainketa Intentsiboetako Unitateen egoera, baina, bestelakoa da. Areagotu egin da han artatutako herritarren kopurua. Aurreko asteko martitzenean 39 ziren eta 52 izan dira oraingoan. Osasun Sailak adierazi duenez,

Jaitsi egin da Elorrioko egoitzan kutsatutakoen kopurua: 11 dira

Bizkaiko Foru Aldundiak egoitzetan dauden koronabirus kasuak eguneratzen ditu. Eguaztenean azaldu zuten, 11 egoiliar daude koronabirusak jota Elorrioko egoitzan. Kopuru hori 21era ailegatu zen iraila hasi berri. Ordutik hona, kopurua jaisten joan da. Ekintza sozialeko ardura-dunek diotenez, egoiliarrei etenik barik egiten ari zaizkie PCR probak. Egun birik behin eguneratzen dituzte datuak.

Bizkaian 155 egoitza-zentro daude, eta 10.748 bat egoiliar. Horiatariko 134ri atzeman zaie gaixotasuna. 15 egoiliar ospitaleratuta daude. 1.678 dira positibo eman eta gero sendatu direnak, Foru Aldundiaren esanetan.

iraila hasi denetik 31 herritar hil dira Euskal Autonomia Erri-degoan "koronabirusaren eragin zuzenagaitik".

PCR probak Euban

Astelehenean osasun dispositibo berezi bat ipini zuten Eubako frontoian. Bizkaiko Foru Aldundiak aginduta, PCR proba prebentiboak egin zizkieten Durangaldeko eta Arratiako egoitzetako beharginei. Aldundiak argitu zuen proba prebentiboak zirela, inolaz ere agerraldi jakinei lotu-

Iurretan 10 euroko bonuak ipini dituzte herritarren eskura, tokiko komertzio eta tabernetan kontsumitzeko

Guztira, 2.000 bonu kaleratu dituzte eta bakoitzagaz 20 euroko gastua egin daiteke. Iurretako Udalak Dendak Bai elkarteagaz ipini du martxan kanpaina

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak bonuak ipini ditu herritarren eskura, tokiko komertzioan eta ostalaritzan erabiltzeko. Herritarrek 10 euroan erosi ditzakete bonuak, eta horiekin 20 euroko gastua egin. Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) daude salgai, eta azaroaren 30era bitartean erabili daitezke. Guztira, 2.000 bonu kaleratu dituzte. Dendak Bai elkarteagaz elkarlanean ipini dute martxan bonu kanpaina, aurreko lehenengoz. Bonuen erdiak dendetan erosteko erabiliko dira, eta beste erdiak ostalaritzan.

Ondoren, bezeroengandik jasotako bonuen truke, dendari eta os-

talariek beste 10 euro jasoko dituzte udalaren eskutik. "Hartara, 40.000 euro bideratuko ditugu merkataritza eta ostalaritza suspertzera", na-

Euro bateko, euro biko eta bost euroko bonuetan zatituta emango dira 20 euroko erosketa bonuak

barmendu du Iñaki Totorikaguena alkateak. Iurretako hamazazpi komertzio eta bost ostalarik bat egin dute kanpainagaz. Bonuen balioa zatituta egongo da, eta honela banatuko dira 20 euroak: euro bateko

bost bonu, euro biko beste bost eta bost euroko bat.

"Horrela, bonuak komertzio askotan erabili ahal izango dira, erosketa desberdinak egiteko aukera emanda", argitu du Alex Palacios Dendak Bai elkartearen presidentea.

Helburu bikoitza

Ekimenak helburu bikoitza du alkatearen berbetan: "Herriko komertzioetan erostea sustatzea eta familiei laguntzea COVID-19ak eragindako kalteei aurre egiten". Uztailean, udalak 75.000 euro ipini zituen COVID-19ak merkataritzan eta ostalaritzan eragindako kalteak arintzeko.



Iñaki Totorikaguena alkatea eta Alex Palacios Dendak Bai presidentea, aurkezpenean.

“Gehienak mendi ibilbideak egitera dato; Otxandio inguruko naturak erakartzen ditu”

Udan Euskal Herritik, eta, batez ere, Bizkaitik joan da turistik gehien; Frantziako eta Belgikako bisitariak ere izan dituzte



Mikel Sanchez Bengoa
Otxandioko turismo
bulegoko arduraduna
Otxandio | 1994

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Aurten lehenengoz, turistei bide-ratutako informazio puntu bat ipini dute Otxandio plazaan. Uztailean zabaldu zuten eta iraila amaitu arte egongo da zabalik: bariku arratsaldeetan 17:30etik 20:30era eta asteburuetan 10:00etatik 14:00etara. Mikel Sanchez otxandiarra dago bulegoaren kargu eta, oraingoz, ekimen arrakastatsua izaten ari dela azaldu du.

Zenbat jende etorri da uztailean eta abuztuan?

Uztailean 90 lagun etorri ziren bulegora informazio bila; abuztuan, oster, dezente gehiago, 120 inguru. Jakina, gehienak familiekin edo lagunekin etorri ziren.

Zein da bisitarien profila?

Batez ere familiak etorri dira, 35 urtetik gorako gurasoekin. Gazteagoak, normalean, informazioa aurretik bilatzen dute, interneten. Jatorriari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegotik eta, batez ere, Bizkaitik etorri da jenderik gehien orain arte. Normala da eta espero genuen, bizi dugun egoera honetan

tokian tokiko turismoa bultzatzen ari direlako. Estatukoei dagokionez, Kataluniako, Madrilgo eta Valentziako bisitariak nabarmendu dira. Frantziatik ere etorri dira eta Belgikatik ere bai lagun bat.

Belgikatik ere bai?

Bai, motxila hartu eta Euskal Herria ezagutzen zebilen, kostaldea batez ere, eta Otxandiora ere etorri zen.

Zerk erakartzen ditu Otxandiora?

Gehienak mendi ibilbideak egitera etortzen dira, Otxandio inguruko naturak erakartzen ditu. Otxandio Gorbeia eta Urkiola artean dago, inguru natural eta ederrekin inguratuta. Haietara joateko abiapuntu aproposa da Otxandio, erdian dagoelako. Herrian bertan turismo apur bat egin lehenengo, bertan zerbait bazkaldu eta naturaguneetara joan daiteke.

Zer mendi ibilbide daude aukeran?

Hainbat daude. Ibilbide laburretan hiru nabarmendu daitezke: Otxandio mugarrietatik doana, urtero Basabisita egiten den bidetik; Olazarreko pagadietatik zeharrekoa, eta Mekoletatik eta Astikurutzeko neberatik doana.

Herrira datozen bisitariak zer dakite herriari buruz?

Askok gerra zibilagaitik ezagutzen dute Otxandio. Badute honen berri, baina beste asko harrituta geratzen dira, estatukoak adibidez, herri txiki honetan zer gertatu zen jakiterakoan. Ildo horretatik, udalak memoria historikoko lorratzen ibilbidea sortu zuen orain urte batzuk, eta askok ibilbide hori egiten dute, gerra zibilari buruz gehiago jakiteko eta herriko txokoak hobeto ezagutzeko.

Arlo pertsonalean, zelako esperientzia izaten ari da zuretzat?

Oso pozik nabil. Gustatzen zait jendeagaz hartuemana izatea, eta lan

“

Oso pozik nabil. Gustatzen zait jendeagaz hartuemana izatea, eta lan honek horixe eskatzen du”

—

honek horixe eskatzen du. Gainera, jendea pozik geratu da eskainitako zerbitzuagaz, eta balorazio positiboa egin digute. Arrakasta izaten ari den zerbitzua da.

Otxandiarra bazara ere, herria hobeto ezagutzeko balio dizun esperientzia da?

Bai, oso ondo ezagutzen ez nituen gauza askotan sakontzeko balio izan dit. Orain dezente gehiago dakit herriari buruz.

Mallabiko eskolan saneamendu sarea berritu eta oztopo arkitektonikoak kendu dituzte

MALLABIA • J.D.

Udalak hainbat lan egin ditu Mallabiko eskolan uda sasoiaren. Batetik, saneamendu sarea aldatu dute "txarto" zegoelako, Igor Agirre alkateak azaldu duenez. Gainera, orain arte euri-urak eta ur fekalak hodi beretik bideratu izan dituzte eta, aurrerantzean, bakoitzak bere hoditeria izango du. Horrez gainera, beste lan batzuk ere egin dituzte oztopo arkitektonikoak kentzeko. Proiektuak 150.000 euroko aurrekontua izan du; Jaurilaritzatik %60ko laguntza jaso dute.



Mallabiko eskolako irudia.

Autobus geltoki inguruko euri uren drainatzea hobetu dute Mañarian

Gainazaleko zoru zati bat aldatu eta hoditeria sartu dute, urak zuzenean estolderiara bideratu daitezkeen

MAÑARIA • J.D.

Mañariko hainbat txokotan, euri urak hobeto drainatzeko lanak egin dituzte. Udalak, esaterako, autobus geltokiaren ondoan egin ditu konponketa horietako batzuk. Gainazaleko zoru aldatu eta hoditeria berria sartu dute. Aurrerantzean, euri urak hoditeriara bideratuko dira lehenengo, eta handik estolderiara joango dira zuzenean. Modu horretara,

ura errepidera eta espaloira irtetea ekidindo dute.

Tankera horretako beste lan batzuk Arritoki jatetxetik Izurtzara doan errepidearen ondoan egin dituzte. Ur iragazketa batzuen ondorioz, espaloiz zati batzuk urez bustita eta heze egoten ziren. Hori konpontzeko, errepidearen aldeko drainatze sistemak hobetu dituzte, beste lan batzuen artean.

papeleria&hobby
www.alfil.be

ESKOLARAKO ITZULERA

Alfil.be
OFFICE PRODUCTS

Ipad Pro zozketa
30€ baino gehiagoko erosketetan har ezazu parte Ipad Pro baten zozketan

Partehartu eta irabazi

Promoziio baldin 2020 / 09 / 30 arte egindako erosketetan Zozketa 2020 / 10 / 01

Lehiaketaren oinarriak

Alfil.be Durango

Whatsapp 635 725 477

ESKOLA MATERIALA - ARTE EDERRAK - ILUSTRAZIOA - KALIGRAFIA - BULEGO MATERIALA

Folder
DURANGO

2006-tik zurekin batera sortzen

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

publizitatea@anboto.org
94 621 79 02

anboto
komunikabideak

Traña-Matienako kale batean metodo bitxia topatu dute txakurren txiza-parrastadak ekiditeko

Traña-Matienako Zubibitarte kaleko dendari batzuek ur botila beteak ipini dituzte espaloian, eta eragina duela diote



Zubibitarte kaleko argazkia, botilak horma kontran ipinita.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Traña-Matienako dendari batzuek ur botila beteak ipini dituzte espaloian. Botilak ipini dituztenetik, txakurrek ez ei dute txizarik egiten euren negozio atarian. Martin Peti-

te prentsa saltzaileak dio metodoak funtzionatzen duela.

Zubibitarte kaleak itxura berezia du egunotan. Ur botila bat hemen. Beste ur botila bat han. Guztira, bospasei dira espaloian zehar

barreiatutakoak. Kale horretako denda eta negozioen atarietan daude ipinita denak. Txakurrek horma kontra egin ohi dituzten txiza-parrastadak ekiditea da helburua. Petite da ideia bultzatu duena. "Orain

astebete ipini genituen botilak, eta esango nuke metodoak funtzionatzen duela. Azken egunotan ez dugu txakurren txiza-parrastadarik izan kale inguru honetan", azaldu du. Aitortu du kokoteraino daudela

txakurren txizekin. "Aurrekoan, goizaldean ur botila horietariko batzuk errepidera botata ikusi nituen. Esango nuke txakur-jaberen bati ez zaiola hau gustatu. Botilak berriro kentzen baditu, prest nago. Ur botila gehiago ditut gordeta", dio.

Sasoi batean, hauts hori batzuk botatzen zituzten espaloian, baina egungo udal araudiak ez du hala korik baimentzen. Petitek argi utzi du ideia ez dela berak sorturikoa. "Gaztela aldeko herrietan ohikoa da, eta, antza, funtzionatzen du.

"Azken egunotan ez dugu txakurren txiza-parrastadarik izan kale inguruan", dio Petitek

"Gaztela aldeko herrietan ohikoa da, eta, antza, funtzionatzen du", azaldu du Petitek

Matienako beste taberna batek erabili izan du. Batzuek diote txakurrrak txiza bueltan etorri dakiokela ikusten duela, botilan ez dakit zein isla ikusten duela. Auskalo. Kontua da arazoa konpondu dela", azaldu du Petitek.

Egunean 80 kamioi pasatzen direla auzotik salatu dute Eitzagako bizilagunek

Zabortejiaren ondoan dagoen auzoko biztanleek informazio eza kritikatu dute

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Eitzaga auzoko bizilagunak arduraduta daude. Hondakinen biltegia handitzeko obren eraginez, auzotik hainbat kamioi pasatzen dira eguero. Egunean 80 bat zenbatu dituzte. Aste bi baino gehiago daramatzate joan-etorriekin. "Inork ez digu ezelango informaziorik eman, ez kamioien inguruan ezta beste gaien inguruan ere", salatu dute bizilagunek. Zaldibarko

80 bat kamioi zenbatu dituzte. Aste bi baino gehiago daramatzate joan-etorriekin

Auzokideek batzarra egin gura dute hondakindegiko lanen arduradunekin

Udalagaz hartu-emanetan ipini direla, baina ez dietela irtenbiderik ematen diote auzokideek. "Hondakindegiko barrutik pasatu zitezkeen kamioiak, baina berriro ere eitzagatarrak dira kaltetuak. Arduragabekeria handia dago. Osasun azterketak ere eskatu ditugu baina ez dugu erantzunik jaso". Informatuta egoteko, auzokideek batzarra egin gura dute hondakindegiko lanen arduradunekin.



Kamioiak Eitzaga auzotik pasatzen.

Ik Iurreta
kopistegia

IMPRESIO DIGITALA
DISEINU GRAFIKOA

ESKOLA MATERIALEAN
ESKAINTZA ZABALA

Bidebarrieta, 1 • 48215 IURRETA
T: 946 811 070 • info@iurretakopi.com

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA
Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA

soinua

Kalebarria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - 688 815 182
soinua@euskalnet.net

23 urteko gazte bat atxilotu dute AHTaren lanetako makina bati su ematea egotzita

ELORRIO • E.H./M.Z.

Joan zen domekan 1,4 milioi euroko balioa duen makina bat erre zutela dio Ertzaintzak. AHTaren obretako zen makina. Erreketa-gaz zerkusia izan dezakeelakoan gazte bat atxilotu zuten, prentsa oharrean gaineratu dutenez.

Ertzaintzak dioenez, joan zen

domekan, 08:00 inguruan, AHTko lanetako makina bat sutan zegoela jakinarazi zieten. Agenteak bertara joan zirenean, sutea nahita eragindakoa izan zela ohartu zirela gaineratu dute. Ikerketa abiatuta, martitzen arratsaldean 23 urteko gazte bat atxilotu zuten ekintza horregaz lotura izan dezakeelakoan.



Elorriko Iguria auzoko obretako makina bati eman diote su.

Emakumeei laguntza emozionala emateko zerbitzua, Berrizen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

COVID-19aren pandemiaren ondorioak leuntzeko asmoz, Berrizko Udalak emakumeentzako zerbitzu berri bat ipini du martxan: laguntza emozionala emateko zerbitzua. "Pandemiaren eraginez, emakumeen zenbait kolektibotan beharrianak sortu dira. Denbora librearen defizitak eta zainketen gainkargak eragin negatiboa izan dute emakumeen osasun fisikoan eta mentalean. Hori dela-eta, zerbitzu hau ipini dugu martxan", esan dute Berrizko Udaleko kideek.

Gainera, ekimen honek beste helburu batzuk ere badituela jakinarazi dute. Esaterako, koronabirusak herriko emakumeengan izan duen inpaktua detektatzea eta emakumeek izan ditzaketen beharrianak zeintzuk diren jakitea.

Zerbitzua telematikoa izango da, batez ere telefono bidezkoa, baina whatsapppe eta posta elektronikoki.

COVID-19ak herriko emakumeengan izan duen inpaktua detektatu gura dute

Arreta telefonikoa martitzen goizetan eta eguazten arratsaldeetan egingo da

tronikoz ere egin ahal izango da jarraipena. Arreta telefonikoa martitzen 9:00etatik 11:00etara eta eguazten 16:00etatik 20:00etara egingo da. Erantzunak 24 orduko epean emango dituzte la azaldu dute udaletik.

18 urtetik gorakoentzat begirale ikastaroa antolatu dute eskualdean

Durangaldeko Gaztedi Planaren barruan eskaintzen dute

DURANGALDEA • M.Z.

Durangaldeko Gaztedi Planaren barruan Aisialdiko Begirale ikastaroa eskainiko du Durangaldeko Amankomunazgoak. Ikastaroa 18tik 29 urtera arteko gazteentzat

izango da. 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko izango ditu. Bertan parte hartu gura dutenek irailaren 30era arte eman beharko dute izena, Durangoko Behargintzako egoitzan.

ANBOToren Lagun egiteko aukera 15 euroren truke Bizkaia Aurrera Kultura Bonuei eskerrak

Aldundiaren ekimenaren bitartez, Bizkaiko toki komunikabideetako harpidetzak egiteko aukera egongo da

DURANGALDEA • M.ZUAZUBISKAR

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Aurrera Kultura Bonuak aurkeztu zituen barikuan, Bilboko Euskalduna Jauregian. Bonuek 15 eta 25 euroko prezioa izango dute eta bonu horien erosleek 40 euroko balioko erosketak egin ahal izango dituzte kultur produktu eta zerbitzuetan;

baita Bizkaiko toki komunikabideetako harpidetzak ere, lehenengoz. Hori horrela, eta Bizkaia Aurrera Kultura Bonuei eskerrak, bizkaitarrak aukera izango dute 15 euroko prezioa duen B motako bonua erosi, eta horregaz ANBOToren Lagun egiteko eta ANBOToren proiektuari babesa emateko. Bonurik barik

30 euroko balioa du ANBOToren Lagun egitea.

Bonu hauen bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko kultur industrietako konpromisoa adierazi eta kulturaren kontsumoa sustatu gura du. Lorea Bilbao Kultura, Euskara eta Kirol Diputatuak adierazi duenez, "Kultura ekosistema oso bat da. Kultura bada enplegua ere, enplegu berezia gainera: intermitentea, oso profesional kualifikatuz osatua, enpresa txikiz eta autonomoz osatua. Kultura industria da. Kulturak, besteak beste, aberastasun ekonomikoa dakarkio gizarteari. Kultura inbertsioa da, gizartearentzat ezinbesteko ondarena."



Barikuan aurkeztu zuten kanpaina, Euskalduna Jauregian.

Irailaren 13ra arte eman daiteke izena Helduen Hezkuntza Ikastetxean

Matrikula 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara egiteko aukera dago

DURANGALDEA • M.ZUAZUBISKAR

Durangoko Helduen Hezkuntza Ikastetxean ikasketak egin gura dituztenek oraindino ere badute aukera 2020-2021 ikasturterako matrikula egiteko. Matrikula goizetan 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 16:00etatik 19:00etara egin daiteke.

Helduen Hezkuntzak oinarritzko prestakuntza ematen du: alfa-

Oinarritzko prestakuntza ez ezik, arautu bako ikasketak ere eskaintzen dituzte ikastetxe honetan

betatzetik hasi eta Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu arteko prestakuntza. Informatika

klaseak, ingeles eskolak eta atzerriarrentzat gaztelania ikastaroak ere emango dituzte. Horrez gainera, goi mailako zikloetara eta unibertsitatara sartzeko probak prestatzeko ikastaroak ere ematen dituzte.

Helduen Hezkuntza Ikastetxetik jakinarazi dutenez, taldea osatuz gero, arautu bako ikasketak euskaraz eskaintzen dituzte.



Irailaren 13ra arte eman daiteke izena.

BURUARI KLIK!



DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak.



TOPATU ITZAZU

Azpiko irudian 10 objektu hauek topatu behar dituzu. Gai izango zara denak topatzeko?



OSATU TXORIMALOA

Beheko zein arropa erabilita jantzi dugu txorimaloa??





ITZALAK

Alboko itzal hauetatik
guztietatik, zein da zuzena?



LEKUZ KANPO

Lerro bakoitzean lekuz kanpo dagoen irudi bat dago. Zein da?

1



2



3




4



5




6



LABIRINTOA



Jarraitu zentzu handiena duen sekuentziari. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.



PUZZLEA

Puzzle honi piezak falta zaizkio.
Beharrezkoak al dira behean dauden pieza guztiak?



ERREZETA



 10-12 lagunentzat

 1h eta 15 min

 Zailtasuna: txikia

OSAGAIAK

Oinarria egiteko:

- 150g gurin
- 100g azukre
- Arrautza bat
- 250g irin
- Bainila esentzia
- Txokolate zatitxoak



Gurina bigun dagoenean, nahastu katilu batean azukreagaz, arrautzagaz eta banilla esentziagaz.



Ondo nahastuta dagoenean, bota irina gutxinaka. Argazkian ikusten den masa bat izan behar da. Gero film paperagaz estali eta hozkailuan sartu (ordubete).



Daukagun masari txokolate zatitxoak bota, ondo nahastu arte. Gero erretitu batean masagaz bolatxoak egin euren artean tarteak utziz. Azkenik, sartu laban 10-15 minutuan, 180°-ara.

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 14ra arte

UDA KO 6. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldetik kanpoko
2019ko argazkia
IRABAZLEA

Durangaldeko 2019ko
argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

anboto 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK


DURANGO


Garaiako
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

Ali Boulo Santo

KONTZERTUA
ZORNOTZA :: Irailak 13

Kora, mendebaldeko musika tresna ikonikoaz gozatzeko aukera

Senegalgo Ali Boulo Santo musikariak kontzertua eskainiko du, irailaren 13an, Zornotzan. Boroako San Pedro basilikan joko du, Eleizatan kultur egitarauaren barruan. Koraren sustraietara itzulera sakona egingo du emanaldian, Mendebaldeko Afrikako tresna ikoniko honen soinuen edertasunaz eta botereaz gozatzeko aukera emanez.

Ali Boulo Santok publikogaz partekatzen du berak egindako bidaia musikala. Modu horretan, arbasoei bere esker ona adierazi gura die, eta bere lanagaz leialtasunez eta grinaz jarraitzeko konpromiso apala erakutsi gura du, dioenez. Ondare honen enbaxadore lez dihardu, kultura eta belaunaldien artean zubiak sortuz. Kontzertua 19:30ean hasiko da.



'Bizi Dantza', Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik

PAILAZOAK | Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek dantza egiteko gonbita egingo dute Elorrión, domekan. *Bizi Dantza* ikuskizuna eskainiko dute, 19:00etan, plazaren alboko aparkalekuan.

"Animaliak ere sortu ziren unetik bertatik, dantzari dabilta lurraren inguruan. Geu ere hitzaren jabe izan aurretik

dantzatzen gara, zaldiak, izurdeak eta tximeletak bezala", diote Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek. Bada, dantzatzen animatuko gaituzte irailaren 13an, "gure barruko animalia" plazara ateratzeko gonbita egingo digute. Udazkeneko Kultur Zopa ekimenaren barruan etorriko dira Elorriora Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

Irailaren 11n

IURRETA ikuskizuna
'Up!!!' (Xabi Larrea),
19:30ean, Askondoko aterpean. Iurreta Kultura Bultzatuz 2020 egitarauaren barruan.

Irailaren 12an

BERRIZ ikuskizuna
'Tambores de Fuego' (Deabru Beltzak),
20:30ean, eskolako patioan edo Olakueta plazan.

IURRETA antzerkia
'Turistrendo' (Trapu Zaharrak), 19:30ean Askondoko aterpean, Iurreta Kultura Bultzatuz 2020 egitarauaren barruan.

ZORNOTZA musika
Englar, 19:30ean Bernagoitiko San Migel eleizan. Eleizatan egitarauaren barruan.

Irailaren 18an

BERRIZ antzerkia
'Al otro lado' (Zanguango Teatro), 20:00etan, eskolako patioan edo Olakueta plazan.



Irailaren 11tik 12ra bitartean

DURANGO lehiaketa
'Labur Esanda' film laburren lehiaketa. Gai bat, esaldi bat eta objektu bat dute lehiakideek film laburra osatzeko. 500 euro banatuko dituzte saritan. Izen-ematea irailaren 11n, 16:00etan, Plateruenean. Emaila ere idatzi daiteke: laburesanda@berbaro.eus

Urriaren 4ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Sorginak' 42 emakumeren lanak, Arte eta Historia Museon. Bisita gidatua irailaren 11n, Goiuri Aldekoa-Otaloraren eskutik.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• **En busca de Summerland**

barikua 11: 19:30/22:00
zapatua 12: 19:30/22:00
domeka 13: 19:00/21:15
astelehena 14: 18:30/20:30
martitzena 15: 20:00
eguztana 16: 17:30

• **Un diván en Túnez**

barikua 11: 19:00/22:00
zapatua 12: 19:00/22:00
domeka 13: 19:00/21:15
astelehena 14: 18:00/20:30
martitzena 15: 19:30
eguztana 16: 19:00

• **Las niñas**

barikua 11: 19:30
zapatua 12: 19:30
domeka 13: 18:00
astelehena 14: 18:30
martitzena 15: 19:30
eguztana 16: 19:00

• **Tenet**

barikua 11: 21:00
zapatua 12: 21:00
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

• **Padre no hay más que uno 2**

zapatua 12: 17:00
domeka 13: 16:30

• **%100 Wolf. El pequeño gran lobo**

zapatua 12: 16:30
domeka 13: 16:45

• **Koko dragoi txikia. Oihanean**

zapatua 12: 17:00
domeka 13: 16:30

:: Zornotza ARETOA

• **Va por nosotras**

barikua 11: 20:15
zapatua 12: 20:00
domeka 13: 20:15
astelehena 14: 20:15

• **Bihurri. Jauretxetik kale gorria**

zapatua 12: 17:00
domeka 13: 17:00



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

Hizkuntza eskolan?

Bai. Ikasi euskara

Ja. Lernen Sie Deutsch

Oui. Apprenez le français

Yes. Learn English

Esperientzia handia

1994tik Durangon

Hizkuntzak

Euskara, alemana, frantsesa
eta ingelesa.

Mailak

A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2 - C1

Orduak

Astean 4:30 ordu, egun bitan

Titulu ofizialak

A2 - B1 - B2 - C1

Prezioa

72,36 €
ikasturte osoa

Matrikula

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 28ra

2. fasea: irailaren 28tik urriaren 15era

PRESENTZIALA

Azaroaren 2an

Talde semipresentzialak – eskaintza

Euskara C1: 4 talde
Ingelesa B2.2: 3 talde

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45





Gaiuri Aldekota-Otalora, Durangoko Museoa.

“Dugun iraganagaz, sorginen gaiak jakin-min handia sortzen du hemen”

Goiuri Aldekota-Otalora argazkilari durangarraren 'Atzokokaka' lana Sorginak erakusketan dago ikusgai

ARGAZKIGINTZA • ARITZ MALDONADO
Sorginak erakusketa osatzen duten 42 lanetariko bat Goiuri Aldekota-Otalora argazkilari durangarrarena da. XV. mendetik XVIII. mendera, Europan 250.000 emakumetik gora hil zituzten sorginkeria leporatuta, krudelkeriaz. Hilketak horiek hizpide hartuta, AIMA elkarteak erakusketa antolatu du. Urriaren 4ra arte egongo da ikusgai, Durangoko Arte eta Historia museoan.

'Atzokokaka' ikusgai dago Sorginak erakusketan.

Silvia Federiciren *Caliban eta Sorgina* liburua oinarri teoriko moduan hartu dute oraingo honetarako. Euskal Herriko hainbat artista daude gonbidatuta, tartean ni. Moxalen [Hannot Mintegia] abesti bati irudiak ipini dizkiot Atzokokakan, eta hori ikusten da erakusketan. Abestian Aiora Erreterriak, Ainara Legardonek, Mursegok eta Miren Narbaizak abesten dute. Koroak egiten dituzte eta entzun nituenean, sorginak, sua eta horrelakoak etorri zitzaizkidan burura. Irudi ilunak gustuko ditut, espresionismo alemaniarra esaterako, eta eragin hori nabaria da, musikak argi printza batzuk badituen arren. Hortik abiatuta, ibilbide bat egitea bururatu zitzaidan, ilunetik argira doazen emakumeak, emakume indartsuak, berpizten doazenak, eta duten indarrak konturatzen direnak, hainbeste urtean zapalduta egon ostean. Feudalistotik kapitalismorako trantsizioan, Durangaldean, Zugarramurdi inguruetan eta Europako beste hainbat txokotan emakumeak erre egin zituztela gogoratu behar dugu; emakume ahaldunduak isilarazteko erre zituzten. Elizak eta kapitalismoak ere eragin dute emakumeak zapalduta mantentzen. Esango nuke hortik irriten ari garela, eta hori adierazi gura dut lanean.

Erakusketarako enkarguz eginiko lana dirudi bideoak.

Bai, ematen du, baina ez da horrela. Kutsu horretako hainbat

argazki ditut, autorretratuak, emakumeenak, asko.

Bisita gidatu bi egingo dituzu.

Erakusketa arrakastatsua izaten ari da. Durangon daukagun iraganagaz, sorginen gaiak jakin-min handia pizten du. Hemen ez digute istorio hori erakutsi. Europan 250.000 emakume baino gehiago hil zituzten, eta inork ez daki horri buruz. Sarraski bat izan zen. Ikerketa lanak egiten ari dira orain, Ander Berrojalbiz *Herejeen alaba*, adibidez, eta badirudi jendea konturatzen hasi dela zelako grabea izan zen. Sorginaren irudia emakumezko gaizto, zatar eta okerragaz lotzen du jendarteak.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Fase desberdinetan dauden hainbat proiektu ditut esku artean. Maurizia Aldeiturriagari buruzko dokumental batean lanean nabil, eta hor aurreratua go daukagu lana. Bera ere andre indartsua zen, izaera fuertekoa. Euskal Herrian emakume ikonikoa izan zen; nik neuk mirestu

“**Abestiko koroak entzun nituenean, segituan etorri zitzaizkidan sorginak, sua eta horrelako irudiak**”

egiten dut. Dokumentazio lana nahiko aurreratuta daramat, baina denbora ere behar da, eta Virginia Woolfek esandako moduan, norberak bere logela propioa behar du, baina hor ere esango nuke lan bikoitza egin behar dugula emakumeok, eta sormenerako denbora gutxiago dugula horregaitik. Batzuk haserretu egingo dira behar bada, baina sormenari denbora gutxiago eskaini ahal diogu emakumeok, eta hori beste handikap bat da. Baina ilusio handia dut eta inguruan jende asko ari zait laguntzen, Irati Eguren besteak beste.

Udabarria
bertsotan
Bizkaiko Txapelketarako sailkapen fasea 2020

IRAILAK 23
BerriZ

Kultur Etxean

18:30ean

- Aitor Esteban Etxebarria
- Axier Goñi Arsuaga
- Iruri Altzerreka Martinez
- Maider Altuna Urbina
- Mikel Goiriena Larrazabal
- Nahia Ibarzabal Gisasola

Gai-jartzailea:

Itxaro Juaristi Olaetxea

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea





Olatz Salvadorrek kontzertua eskaini zuen abuztuan, Plateruenean.

Durangoko Uda Kulturaz Blai kultur zikloak 4.600 ikusle bildu ditu

Antolatzaileak pozik agertu dira zikloak izandako harreragaz; 35 ikuskizun eskaini ziren

KULTURA • ARITZ MALDONADO

Durangoko Uda Kulturaz Blai zikloa amaituta, antolatzaileek balorazioa egin dute eta pozik agertu dira kultur egitarauak izandako harreragaz. Uztailaren 3tik irailaren 5era bitartean, 100 kultur jarduera egin dira Durangon. 35 zuzeneko ikuskizunak izan dira, eta horietariko bederatzitan erreserba guztiak betetzea lortu zela azpimarratu dute. Guztira, 4.600 ikusle bildu dituzte jarduerak.

Durangoko kulturguneen arteko elkarlanean sortu diren

Kulturguneek elkarlanean prestatu dute egitaraua; sorturiko sinergiak azpimarratu dituzte

Udazkenara begira, egitarau berria aurkeztuko dute datorren astean

"sinergiak" ere nabarmendu dituzte. "Egitarau bereziki aberatsa eskaintzea lortu dugu", nabarmendu dute.

Ziklo berria

Kulturari eman zaion babesaz azpimarratzea gura izan dute udal gobernutik. "Berraktibazio planean 200.000 euro baino gehiago eskaini dizkiogu kulturari, herria berpizteko gakoetariko bat iango delako", azaldu du Ima Garrastatxu alkateak. Udazkenara begira, egitarau berria aurkeztuko dute datorren astean.

Askondoko karpa antzeztoki bilakatuko dute asteburuan

Iurretako Udalak antolatuta, Xabi Larrearen 'Up!!!' eta Trapu Zaharraren 'Turisteando' antzezlanak eskainiko dituzte

ANTZERKIGINTZA • A. B.

Asteburuan, emanaldi bi egongo dira ikusgai Iurretako Askondo plazako karpán. Alde batetik, zirkua eta umorea ardatz dituen *Up!!!* ikuskizuna. Barikuan izango da, hilak 11, 19:00etan. Bihar, zapatua, Trapu Zaharra konpainiak *Turisteando* obra taularatuko du. Bidaia agentzia batek masa turismoak eta industria turismoak eragindako ondorioak minimizatzeko abiarazten duen kanpaina bat

du abiapuntu antzerki honek. 19:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak doakoak izango dira emanaldi bietan, baina aurretik erreserbatu beharko dira. Segurtasun neurriak kontuan hartuko dira.

Iurretako Udalak Iurreta Kultura Bultzatuz 2020 programa prestatu du, kultura sustatzeko, herria dinamizatzeko, eta koronabirusaren eraginez bertan behera geratu zen Kalez kale jaialdiaren hutsunea betetzeko.



'Up!!!' barikuan egongo da ikusgai.

Gai librean

Pantailako "lagunak" eta lagunak

Erabiltzen dituzun sare sozialak erabiltzen dituzula ere, har itzazu hamar minutu sareotan dituzun "lagunei" begiratzeko. Halako zenbat "laguni" ez diezu aspaldian deitu? Zenbat "laguni" deitu diezu noizbait? Halako zenbat "lagun" izan dira noizbait lagun?

Salbuespenak salbuespen, lagun-tasun harremanak ez dira telefono deien bidez sostengatzen; baina, are gutxiago, "gustuko dut" baten bidez. Zer duzu ba gustuko?

Kontaktu pila bat ditugu, informazioa barra-barra, pantailan bertan edonoren argazkia edonoiz eta edonon. Kanean burua altxatuz lotsati samar agurtu zaituenak zure argazkia gustuko duela diotsu mugikorrera iritsi berri zaizun jakinarazpen batek. Jakin badakigu sare sozialak ez direla



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

Zenbat "laguni" deitu diezu noizbait? Halako zenbat "lagun" izan dira noizbait lagun?

Ez ahaztu, pantailetatik burua altxa eta bizitza beste toki batean dagoela konturatuko zara

lagunekin bakarrik konpartitzeko espazioak, eta zilegi ez ezik beharrezko ere badela laguntasun zirkulutik kanpoko jendearekin hartu-emana izatea, informazioa konpartitzea. Hala ere, sentsazioa dut, pantailetan murgildu garenetik gutxiago eta okerrago zaintzen ditugula harremanak, prekarioagoak bihurtu direla, eta birtualki komunikatzeko gaitasunak

aurrez aurre elkarri denbora eskaintzeko gogoia eta elkarrekin bizitzeko tresnak erauzi dizkigula.

Hartzen dituzun hamar minutu horietan, agian, topatuko duzu sorpresaren bat edo beste. Informazioa eta estimuluak saldoka iristen zaizkigun garaioetan, sarritan konturatu ere ez gara egiten begien aurrean zer agertzen zaigun. Harremana eten zenuen aspaldiko lagun on bat oporretan dagoela erakutsi diezazuke argazki batek. Badira jada urteak elkarren berri ez duzuela, nahiz eta bata bestearen mugimendu asko kontrolpean dituzuen, pantaila dela medio. Gaur egun, laguntasuna bukatzea, fisikoki zein emozionalki elkarrengandik urruntzea, hori baino biolentoagoa bilakatu da sare sozialetan elkarren "lagun" izateari uztea. Baina ez ahaztu, pantailetatik burua altxa eta bizitza beste toki batean dagoela konturatuko zara.



Danel Ibarrondo Garay
Durangoko Kulturala
taldeko jokalaria
Abadiño (Elorrion
bizi da) | 1999

“Ezagutzen dut Hirugarren Maila; konfiantza eta lasaitasun puntu bat ematen dit horrek”

Eibarko etapa amaituta, bere lehenengo urratsak eman zituen Kulturalera bueltatu da Ibarrondo

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Iaz lege, Durangoko Kulturalak talde gaztea izango du aurten ere: 24 urte, batez beste. Odol gazte horren adibide da Danel Ibarrondo, 21 urteko abadiñarra. Lauaxeta ikastolan eman zizkion lehenengo ostikadak baloiari, eta Durangoko Kulturala izan zuen bere aurreneko futbol kluba. Kadete adinean Eibar klubak fitxatu zuen. Harrezkero, han aritu da, Amurriogaz Hirugarren Mailan jokatu zuen urtea kenduta. Aurten, Durangoko klubagaz, berriro Hirugarren Mailan jokatu du eskuin hegalean aritzen den jokariak.

Zelakoa izan da zure etxea izandakora itzultzea?

Ona. Baditut ezagun batzuk taldean, Kulturalen jokatu nuen sasoian ezagutu nituenak. Aurpegi ezagunak aurkitzeak laguntzen du. Lau urte eman dituzu Eibarren. Zelan baloratzen duzu han emandako denbora?

Oso oroitzapen onak utzi dizkit. Han emandako denboran asko ikasi dut. Futbolari moduan zein pertsona moduan hasteko aukera eskaini dit. Esperientzia positiboa izan da eta han emandako denbora ez nuke beste ezergaitik aldatuko. Gainera, azken urteetan harrobia asko lan-

tzen ari dira, geroago eta egitura indartsuagoa dute eta hori bertatik bertara bizitzea polita izan da.

Aurten Hirugarren Mailan arituko zara Durangoko Kulturalagaz. Maila hori zer den badakizu, 2018/2019 denboraldian Amurrio taldean aritu

“**Protokoloak murriztu egiten ditu normalean besteekin hartu-emanak sendotzeko erabiltzen diren une eta espazioak**”

zinen eta maila horretan. Zelako esperientzia izan zen?

Beste esperientzia positibo bat izan zen niretzat. Amurrio Hirugarren Mailako talde umil bat da eta ez du beste klub batzuen errekursorik, baina oso gustura ibili nintzen, taldean giro ona zegoelako. Partiduetan sufritzea egokitzen zitzaigun sarritan, baina, benetan diot, gozamina zen eurekin jokatzea. Gainera, kategoria berria zen niretzat. Erronka moduan hartu nuen. Hasieratik igarri nuen maila gogorra zela, ni baino esperientzia gehiagoko jokariak zeudelako, baina denboraldiak aurrera egin ahala egokitu nintzen mailara, eta askotan jokatu nuen.

Hirugarren Mailan jokatu ahal izateko zer behar den ikasi zenuen.

Hori da. Ezagutzen dut Hirugarren Maila zer den, ez dut hutsetik hasi behar eta konfiantza eta lasaitasun puntu bat ematen dit horrek.

Talde nagusiagaz arituko zaren urte honetan, zeintzuk dira zure helburuak?

Gozatzea eta ikastea. Eta ahal badut, jokatzea, jakina. Ez da erraza izango, baina ahaleginduko naiz.

Talde lehiakorra duzue?

Maila oso ona dagoela ikusi dut, espero nuen baino handiagoa. Hori ona da taldearentzat. Nire ustez, talde polita dugu. Gero, hori guztia zelaian erakutsi behar da, jakina.

Jokariaren batez besteko adina 24 urtekoa da, oso gaztea. Esaterako, taldeko zazpi jokariak zure adina dute, edo gazteagoak dira.

Bai, egia da talde gaztea duguna, baina esperientziadunak ere badaude. Nik uste dut gazteen eta beteranoen arteko nahasketa hori interesgarria dela eta gauza politak egin ditzakegula. Gazteoi ilusioa behintzat ez zaigu faltako.

Hiru aste daramatzazue entrenamenduak hasi zirenetik. Zelakoak izan ziren lehenengo egunak?

Lehenengo egunetan talde txikitik banatuta ibili ginen. Entrenamendu normalekin alderatuta, diferentia izan zen, baina hobea lesioak ekiditeko.

Denbora luzean jokatu barik egon ostean, bazenuen lesioen beldurrik?

Ez dakit beldurra deituko nion, baina errespetu handia bai, behinik

behin. Eta ez nire aldetik bakarrik, taldekide guztien partetik ere bai. Ez da berdina etxean egiten den lana eta entrenamenduetan egiten dena.

COVID-19ak asko baldintzatzen du zuen jarduna ala zerbait eramangarria da?

Talde handian entrenatzen hasi garenetik eramangarria dela uste dut. Segurtasun protokoloaren alderik negatiboena da, jokariaren arteko hartu-emanak zaildu egiten direla. Eta jokari berria zarenean, gehiago. Hau da, murriztu egiten ditu normalean besteekin berba egiteko eta hartu-emanak sendotzeko erabiltzen diren une eta espazioak.

Kulturalak entrenatzaile berria du aurten: Jon Larreategi. Ezagutzen zenuen?

Bai, Eibarko filialean aritu zen, Vitoria taldean, eta ni astebete inguruan talde hartan entrenatu nintzen. Ordutik ezagutzen dut. Horrez gainera, futboleko jokatzen ere ikusi dut Urritxan, Amorebieta klubeko jokalaria zela. Izan ere, sasoi hartan nire osaba zebilen entrenatzaile han: Axier Intxaurruga. **Intxaurragak Durangoko Kulturala, Amorebieta, Barakaldo eta Portugalete taldeak entrenatu ditu, besteak beste. Eman dizu gomendiorik?**

Tratu ona dugu. Kulturalak fitxatu ninduenen, zoriontzeko deitu zidan. Etapa berrian gozatzeko esan dit, eta dena emateko.



Bertako +, kalte ekologiko -
Lortu erosketa-sorta bat!
Entrega-puntuak

Madalena plaza:
Irailaren 10ean eta irailaren 24an
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

Ezkurdi plaza:
Irailaren 17an eta urriaren 1ean
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

*500 pack banatuko dira egun bakoitzeko.

Kanpainaren oinarriak:
Kanpainaren helburua erabiltzen diren 30% garatuta dagoen
kanpainaren gaitasunak erabiltzea eta erabiltzen diren kanpainak
kanpainaren gaitasunak erabiltzea eta erabiltzen diren kanpainak
2020ko azararen 1etik urriaren 1era arte egindako erosketak kanpainaren
gaitasunak erabiltzea eta erabiltzen diren kanpainak
Informazio gehiago: www.dendakbai.eus

guk DURANGO

Dendak Bai
489 738 102
www.dendakbai.eus

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com



Irene Loizate, asteburuko proba amaitu eta gero. ALUSIGMA PEÑOTA DENTAL

Loizate bigarren Espainiako triatloi txapelketan

Irene Loizate durangarrak hasiera bikaina eman zion denboraldiari joan zen asteburuan lehiatutako proban

TRIATLOIA • J.D.

Joan zen asteburuan, distantzia luzeko Espainiako Triatloi txapelketa jokatu zen Banyolesen (Herrialde Katalanak), eta Irene Loizate 25 urteko durangarra azpitxapeldun geratu zen. 1.500 metroko igeriketa saioaren ondoren, bizikleta gainera igo eta Alusigma Peñota Dental taldeko duranga-

rrak onenen multzoan egin zituen 40 kilometroak. Azkenik, korrika egin beharreko 10 kilometroak egin eta gero, Paula Herrero asturiarra baino ez zen helmugaratu bere aurretik. 1.08-ko aldea izan zen triatloilari bien artean. Taldeka ere zilarrezko domina irabazi zuen, bere eta bere taldekideen lanari eskerrak.

Txirrindulari gazterik onenak ikusteko aukera Abadiñoko eta Iurretako probetan

Gazte mailan, UCI kategoriako lasterketa bana lehiatuko dute zapatuan eta domekan

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Bizkaikoloreak Sariaren barruan kokatzen dira asteburuko lasterketa biak: zapatuan Abadiñon, eta domekan Iurretan. Batean zein bestean, junior mailako ziklista eta talderik onenetakoak batuko dira, UCI kategoriako probak direlako.

Zapatuko lasterketa 16:00etan hasiko da, Abadiñoko Txanporta

plazan. 61 kilometroko ibilbidean Miota birritan igoko dute. Ondoren, Zornotzarantz joango dira (San Migel, Urrunin eta Dueda auzoeta-

tik) eta Abadiñora bueltatuko dira berriro. Aingeru Guardakoaren ermita parean helmugaratuko dira.

Domekako proba Iurretako Andaparape kalean abiatuko da —Elizaren atzealdean—, 10:30ean. Miota birritan eta Areitio behin igo eta gero, ziklistak Garaira igoko dira. Goiuriatik jaitsi eta Olaburu kalean helmugaratuko dira.

**Zapatuko proba
16:00etan hasiko da,
Abadiñon, eta domekako
10:30ean, Iurretan**



Gallanda Txirrindularitza Klubak antolatuko ditu asteburuko lasterketa biak.

Jokaldia

Itzulera

Badirudi bizitza martxan hasi dela berriz ere. Kaleak, plazak eta autobusak bete dira. Baina normaltasun berri delako honek ez dirudi oso ohikoa denik. Kirolariok ere itzuli gara gure lanetara. Hasieran etxetik ahal bezala kirola eginez, gero goizean goiz edo eguneko azken orduetan gure herriko mugak zeintzuk ziren argi izanda ibili behar izaten ginen. Baina, azkenean, itzuli dira txapelketak.

Egia esateko, aitortu behar dut alarma egoera eta itxialdia deklaratu zuten egunean, nire entrenamenduez arduratu nintzela, eta amorratu egin nintzen korrika egitera atera ezin izanaz. Ondoren, lasterketa guztiak atzeratu edota suspenditu egingo zirela esan zutenean amorrua eman zidan. Baina denbora baten ostean, benetako egoeraz jabetuta, hori guztia bigarren maila batean gelditzen da. Eta konturatzen zara inguruko osasuna dela gehien larritzen zaituena, familia eta lagunak ez ikustea dela gehien kezkatzen zaituena. Ho-

rregatik gaur ez daukat kirolaz idazteko ezer honekin loturik ez dagoenik. Hala ere, gogoz itxaroten egon garen garaia iritsi da, txapelketak hasi dira. Jada bi lasterketa egin ditut. Estadioan, gradak hutsik, denok maskarilla jantzita, lasterketa bukatzean ezin da aurkaria eta aldi berean laguna dena zoriondu, besarkatu, hari eskua eman... nahiko egoera arraroa izan zen.

"Dorsal bat jartzeaz eta egunero kalean entrenatu ahal izateaz zorteko naizela sentitzen dut"

Hori guztiori hala izanda ere, momentu honetan dorsal bat jartzeaz eta egunero kalean entrenatu ahal izateaz zorteko naizela sentitzen dut. Eta pozik eta eskertuta nago horregatik. Itzuliko dira emaitzez hitz egingo ditudan garaia, orain irteera lerroan jartzea soilik egon daitekeen emaitzarik onena da.



June Arbo Sarriugarte
Korrikalaria



Iurreta
Eleizateko Udala

IURRETA UDALERRIKO
ENPRESA-PROIEKTUEN
XII. LEHIAKETARAKO
DEIALDIA

Helburua: Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

Oinarriak: Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren web gunean eskura daitezke.

Proiektuak aurkezteko:
2020ko azaroaren 30 arte,
H.A.Z.-en (Bidebarrieta 5).

Saria: 6.000 €

Tfnoa: 94 620 12 00
www.iurreta.eus



DURANGALDE



Errementarien omenez

Burdingintza Otxandiori oso lotutako jardunbidea izan da mende askotan. Sasoi batean ohikoa zen etxebizitzetan suteak izatea. Hartu-eman estu hori gogoratzen du 2017ko uztailean errementarien omenez Ospital kalean inauguratu zuten eskulturak. Zelan ez, Otxandiori hainbeste onura ekarri dizkion materialez eginda dago.

KO TXOKOAK?



Urkiolamendi, edonork igotzeko moduko tontorra

Lehenengo planoan Urkiolamendi (edo Urkiolagirre), eta bere parean Alluitz. Ia garaiera bera dute mendi biek—23 metro gorago dago Alluitz—baina askoz eramangarriagoa da Urkiolamendira heltzea. Urkiolatik, familian igotzeko aproposa da. Alluitz ibilia-goentzako erronka da.



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org





Botikak	
BARIKUA, 11 - 09:00-09:00	ASTELEHENA, 14 - 09:00-09:00
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA
GUTIERREZ, IBAN TXIKI Otaegi 3 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 12 - 09:00-09:00	MARTITZENA, 15 - 09:00-09:00
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
09:00-13:30	09:00-22:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 16 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 17 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARRIA SASIKOA 17, DURANGO
09:00-22:00	RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00
DOMEKA, 13 - 09:00-09:00	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Irailaren 6an aittitte **Karmelon** urtegune ospatu gendun. Zorionak eta holan jarraitu guapo-guapo.

Abuztuaren 30ean **Natali** Cebrianek urteak egin ebazan. Zorixonak laztana etxeko danan partez, mosu handi bat.

Irailaren 4an **Ekain Muriel** Cebrianen urtegune izen zan. Zorixonak, mutil handi!

Eguraldia		
ZAPATUA 🌡 27° / 14° ☀	ASTELEHENA 🌡 29° / 21° ☁	EGUAZTENA 🌡 27° / 19° ☁
DOMEKA 🌡 35° / 15° ☀	MARTITZENA 🌡 29° / 18° ☀	EGUENA 🌡 27° / 17° ☁

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko

Baserritarren

Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

IBAIERTZEKO IPUINA
Oihane Amantegi (Elkar)

AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

“Bizikleta elektrikoa aurkikuntza zoragarria izan zen niretzat”

Jabi Axpek mendiko bizikleta elektrikoak alokatzen ditu Otxandion; egun osorako edo ordu batzuetarako alokatzen ditu; baita egun birako ere



Jabi Axpe Acera
Mendiko bizikleta elektrikoak alokatzen ditu
Otxandio | 1976

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Danoena taberna darama azken 25 urteetan, eta horixe du ofizio Jabi Axpek. “Ez nuke aldatuko. Tabernako lana, jendeagaz sortzen den hartuemana asko gustatzen zait”, dio. Hala ere, erronka berri bati heldu zion uztailen: mendiko bizikleta elektrikoak alokatzea. Estankoa ere badu herrian, eta horren osagarri lez ipini du martxan proiektu berria. Mendiko sei bizikleta elektriko ditu alokairuan, 8-9 urteko umeentzat bi eta helduentzat lau.

Zer dela-eta hasi zinen mendiko bizikleta elektrikoak alokatzen?

Egia esan behar badut, kapritxo bat izan da. Ekainean bizikleta elektriko bat erosi nuen neuretzat.

Itzelean gustatu zitzaidan esperientzia, eta ikusita Otxandion geroago eta turismo gehiago dagoela, bizikleta elektrikoak alokairuan ipintzea okurritu zitzaidan. Estankoren osagarri moduan ipini dut martxan, eta handik bideratzen ditut gestio guztiak.

Zu zeu bizikletazalea zara?

Ez larregi. Esku pilotan aritzen naiz eta futbolaria izan naiz bizi osoan. Iaz utzi nuen Vulcano. Hala ere, pentsatu nuen bizikletan asko ibiltzen ez garenontzat (barrez), apur bat alperrak garenontzat, Otxandio inguru guztia bisitatzeko modu erraza eta polita izan zitekeela bizikleta elektrikoa. Edonork egin dezake 25 kilometroko ibilbide bat, nekatu barik. Turistentzat ere oso

aukera ona da Anboto eta Gorbeia inguruak ezagutzeko. Goiz batean leku asko bisitatu daitezke.

Zelako harrera izan dute?

Uda arraroa izan dugu, baina harre-ra ona izan dute. Batez ere herriko jendeak alokatu ditu, proba egiteko. Turistek ere alokatu dituzte, askok

“

Adin bateko txirrindulariek gazteekin ibilbideak egiteko aukera moduan ikusten dute”

■

Gorbeia Parke Naturaleko Otzarreta pagadira joateko. Udagoiena dator orain, eta uste dut sasoi ona izango dela; izan ere, eguraldi ona eginez gero, mendira joateko hilerik politenak dira. Gainera asko herritik kanpora ibili dira oporretan.

Ibilbideak ere proposatzen dituzu.

Proposatuko zeniguke guri bat?

Oletaraino joan eta handik Urkio-larako bidea egitea proposatzen diet bezeroei, eta Otxandiora bueltatu aurretik Pol-Polera igotzea, adibidez. Beste ibilbide polit bat Otxandioko futbol zelaitik irtenda egin daiteke: Altugaineraino igo eta Barazarretik jaitsita, Otzarreta pagadira, Gorbeia Parke Naturalera, joan daiteke. Ubidera ere joaten dira batzuk, eta gero Motxotegitik bueltatzen dira Otxandiora. Bestalde, herritik irten barik, San Bernabe mendira igo daiteke Mekoletatik, eta Astikurutz nebera bisitatu. Urrunagako urtegraino doan bidea hartu daiteke gero; orain dela gutxi zabaldu dute eta urtegiaren albo-albotik egiten duzu bidea. Ibilbide erraza eta laburra da.

Bizikleta elektrikoen erabilera nabarmen igo da aisialdirako eta turismoarako. Zu zeu ere harrapatu zaitu. Zein sentsazio sortu zizun?

Aurkikuntza zoragarria izan zen niretzat. Ordubetea 20 kilometro egin daitezke, nahiko erraz. Ohiko mendiko bizikletagaz, prestatuta egon behar duzu hori egiteko. Bizikleta elektrikoetan ere pedalei eragin behar zaie, baina asko errazten du bidea.

Ahalegin txikia eskatzen dute.

Hori diote batzuek, tranpa egitea dela! Dena dela, ohiko bizikletagaz baino leku gehigotara heltzeko aukera ematen du. Gutxi nekatzen zara eta inguruko parajeak ikusteko aukera duzu. Adin bateko txirrindulariek gazteekin ibilbideak egiteko aukera moduan ikusten dute, hala esaten didate tabernara datozen hainbatek. Bestela egin ezingo lituzketen ibilbideak egiten dituztela diote. Joan zen asteburuan, 75 urteko bikote batek alokatu zituen bizikleta elektrikoak. Hiru egunerako etorri ziren Otxandiora eta ingurua bisitatu gura zuten.

Lau hortza

Markel Onaandia Txabarri
Kazetaria



Marea gora, marea behera

Kanpotik eta barrutik garbitzen zaituzten bainu horietako bat hartu eta toallan jarri zara, lasaitasun betean, itsasoari begira. Hor dabil gora eta behera, batek daki noiztik, ilargiaren pausora dantzan. Zelan liteke hain urrunean dagoen satellite batek horrelako eragina edukitzea? Jakineko gauza den arren, zure egunerokoan ez zara horretaz akordatzeko eta, gaur, zure begien parean, berriro ere miragarria iruditzen zaizu.

Naturaren handitasun horren aurrean, zeure baitan pentsatzen hasi eta konturatu zara zuk ere goraldiak eta beheraldiak izaten dituzula. Sarritan, hanketan duzun harea bezain minuskulo eta anonimo diren arazoek sortzen dizkizute burukominak. Egunak, harremanak eta animoa higitzen dizkizuten burukominak. Itolarria eragiten dizutenak, olatua txikia izanda ere. Eta, zeure buruari galdetu diozu zer ote den aurpegiko azala arrakalatu dizuna, haizeak, euriak eta kresalak itsasertzeko harraitzetan egin duten bezala. Zuk zeuk ebatzi beharko duzu zerk merezi duen zure denbora eta ardura.

Iluntzen hasi da eta, behatzen artetik ahalik eta hare gehien kendu eta gero, bazoaz etxerantz. Iraganean galdu duzunari baino, geroan irabazteko duzunari begiratzeko gogoz. Iraila da, amaieren eta hasieren lurra. Zure egunerokoari aurre egiten diozun bitartean hantxe jarraituko du ilargiak; baita itsasoak ere, marea gora, marea behera.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com